

ERREFUXIATU ETA ATLETA

Olinpiar Jokoetan munduko 100 milioi desplazatuak ordezkatzuko dituen taldea

Errefuxiatuak lehiatu daitezke. Errefuxiatuek ikas dezakete. Errefuxiatuak erizainak edo medikuak izan daitezke. Administrazioaileak ere izan daitezke. Laguntzaileak ere izan daitezke, eta gauza handiak lortzen ere lagun diezaiekete taldeei». Cyrille Thatchet Errefuxiatuen Talde Olinpikoaren Ongizate arduradunaren hitzak dira. Talde horrek mundu osoan 100 milioi pertsona baino gehiago ordezkatzuko ditu Pariseko Olinpiar Jokoetan.

Eyeru Gebru txirrindulari etiopiarra errefuxiatuen taldeko kidea da. Afrikako Txapel-

 **KIROLA** / Ibai AZPARREN

Gerraren krudelkeria, jazarpenak, krisi humanitarioak edo erbestea pairatu dituzte, baina korrika edo igeri egiten edo pedalei eragiten jarraitu dute. Aurten Pariseko Joko Olinpikoetan parte hartuko dute Errefuxiatuen taldeko kide gisa. Guztira, 11 herrialdetako 37 atleta, 12 kiroletan lehiatuko direnak. Hau da beren historia.

keta Kontinentaletan zilarrezko domina lortu zuen 2019an emakumezkoen errepideko proban, eta urrezko domina 2018an eta 2019an taldekako erlojupekoan. 2021ean herrialdearen iparraldean izandako gerra zibilaren ondorioz, Esta-

tu frantsesera lekualdatu zen. Egunero entrenatzen da frantseseko eskolak arretaz hartzen dituen bitartean. Eyeruk helburu bat du: Paris 2024. «Bizikletan ibiltzeari utzi nion bi urtez baino gehiagoz. Gauzak ez zihoazen ondo, baina amets egitea izan zen une zailak gainditzeko nire indarrak handiena; nire terapia izan zen», adierazi zion "Olympics.com" -i.

2004an jaio zen Musa Suliman, Sudanen, eta gerraren eta desplazamenduaren zailtasunak bizi izan zituen gazteta-

tik. Bederatzi urte zituela Kairora mugitu zen, aitaren osasuna zela eta. 2021ean iritsi zen Suitzara errefuxiatu gisa, eta kirolarekiko maitasunak Bernako futbol talde batean sartzera eramane berehala. Entrenamenduetan korrika egiten zuenean, taldekideen arreta erakarri zuen, eta horrek atletismo klub batera batzeko gonbidapena ekarri zion. Handik gutxira, 400 metroko proban lehiatu zen eta irabazi egin zuen. Sulimani atletismoak bere buruarekiko konfiantza ekarri zion, baina horrez gain, komunikazioa eta harremanak ere aldatu zituen. Gaur astean sei egunetan entrenatzen da, alemanez azkar

Pariseko Olinpiar Jokoetan parte hartuko duten errefuxiatu eta atleta guztiak.
IOC MEDIA



egiten du aurrera eta bere lehenengo Olinpiar Jokoetan lehiatzeko irrikan dago.

Gebru eta Suliman errefuxiatuen talde olinpikoa ordezkatzen duten 11 herrialdeetako hogeita hamazazpi atletetako bi dira –Irlandik datozen atletak ia erdia dira, horietatik hamabost–; hamabost batzorde olinpiko nazionalek babestuak eta hamabi, kiroleetan lehiatzen direnak. Zehazki, atletismoa, judoa eta taekwondoa dira gehien ordezkatutako kirolak, zazpi, sei eta bost atletarekin, hurrenez hurren. Gainera, piraguismoak (4), igeriketak (2), txirrindularitzak (2), boxeok (2), tiroak (2), borroak (2), halterofiliak (2), breakingak eta badmintonak osatzen dute zerrenda.

Atleta guztiek dute bizirau-pen historia bat atzean, eta gehienek gerraren krudelkeria, jazarpenak, krisi humanitarioak edo erbestea pairatu dituzte. Aurten, Olinpiar Jokoetan hirugarrenez jarraian parte hartuko duen taldea orain arteko handiena da, eta horrek erakusten du gero eta errefuxiatu gehiago daudela mundu osoan.

Hasieran, Elkartasun Olinpikoaren programaren bidez, Nazioarteko Batzorde Olinpikoak (NOB) beka eman zien Pariseko Jokoetarako 75 kirolari errefuxiaturik 12 herrialdeetakoak, 24 harrera-herrialdeetan bizi zirenak eta 14 kirol ordezkatzen zituztenak. Ondoren, taldearen osaketa NOBko Batzorde Exekutiboak onartu zuen, eta irizpide jakin batzuetan oinarritu zen: lehenik eta behin, atleta bakoitzaren kirol errendimendua eta errefuxiatu izatea, ACNUR Iheslarietako NBEko Agentziak egiaztatua. Kirolaren eta generoaren ordezkaritza orekatua ere kon-

tuan hartu dute, baita jatorrizko herrialdeen sakabanaketa ere. Filippo Grandi Iheslarietako Nazio Batuen Erakunde-ko Goi Mandatariak adierazi zuenez, «Errefuxiatuen Talde Olinpikoak gogorarazi behar digu gerrak eta jazarpenak deserrotutako guztien erresistentzia, kemena eta itxaropena. Atleta horiek gizakiek egin dezaketena islatzen dute, baita muturreko ezbeharraren aurrean ere».

HASIERAK

NOBk 2016ko Rioko Olinpiar Jokoetarako errefuxiatuen lehen taldea aurkeztu zuen, hamar atletarekin, munduko arazorik larrienetako baten inguruan kontzientziatzeko. Ekialde Hurbiletik eta beste toki batzuetatik milaka pertsona Europara iristen ziren urte haietan, gatazketatik eta pobreziatik ihesi.

Tokioko 2020rako programatuta zeuden, baina covid-

Goian, Eyeru Gebru errefuxiatu eta txirrindularia.
IOC MEDIA



aren ondorioz 2021ean egin ziren Olinpiar Jokoetan ere lehiatu zen taldea. Orduan, Rioko Jokoetako hasierako taldea baino ia hiru aldiz handiagoa zen; guztira, 29 atleta lehiatu ziren 12 kirolean.

Ali Zada txirrindulari afganistandarra Errefuxiatuen Talde Olinpikoarekin Tokion lehiatu zen, eta aurten taldeko misio-burua izango da. Aurkezpen ekitaldian esan zuenez, «zuek guztiok amets bat zenuten, eta Olinpiar Jokoetan lehiatzeko ametsa inoiz baino gertuago duzue. Aurrean izan dituzuen erronka guztiekin, orain belaunaldi berri bat inspiratzeko aukera duzue».

Zada Afganistango txirrindularia da, Tokion taldekako proban parte hartu zuena. Etiketarik bi aldiz ihes egin behar izan zuen, lehenik Iranera. Bertan, txirrindularitza deskubritu zuen. «Bi urte inguru nituela, talibanak gure herrira iritsi ziren eta Iranera joan

behar izan genuen. Aitak irakatsi zidan bizikletan ibiltzen. Baina Afganistanera itzuli ginenean, emakumeen egoera guztiz desberdina zela ikusi nuen», adierazi zuen.

Afganistango emakumezkoen txirrindularitza taldeko kide zela, jazarpen fisiko eta ahozkoa jasan zuen etxera bueltan bizikletan zihoala. Baina pedalei eragiten jarraitu zuen. «Afganistango jende gehienarentzat, neska bat bizikletan eta kirol arroparekin ikusten zuen lehen aldia zen hura. Oso arraroa egiten zitzaien. Gehienak ez zeuden ados, eta gu gelditzea, iraintzea edo min ematea euren erantzukizuna zela uste zuten», gaineratu zuen.

«Oso zaila zen txirrindularitza egitea kirol profesional gisa; izan ere, hasieran, nazioarteko txapelketan parte hartzea zen nire helburua. Baina egoera oso zaila zen Afganistanen, eta nire herrialdea bigarren al-



diz utzi behar izan nuen, eta 2017an Frantziara etorri nintzen», azaldu zuen.

ENBLEMA BAT 100 MILIOIRENTZAT

Lehen aldiz, Errefuxiatuen Talde Olinpikoa bere enblema propioarekin lehiatuko da, hainbat atleta bildu eta taldeari nortasuna emango dion ikur bateratzaile batekin.

Munduko hainbat txokotatik etorrita, taldekide bakoitza bere historia duen gizabanako bat da. Hala ere, ordezkatzan dituzten 100 milioiek bezala, bizitza hobe baten bila eginiko bidaietako esperientzia partekatua ere badute, eta ikurrak bide komun hori gezi markatzailearen diseinuaren bidez transmititu nahi du.

Ikurraren erdian bihotz bat dago, Olympic Refuge Foundation-en logotipotik datorrena, taldeak inspiratu nahi duen eta mundu osotik joandako

atletek kirolaren bidez aurkitu duten kideasuna irudikatzeko helburuarekin.

Izan ere, errefuxiatuei eta desplazatuei laguntzea funtsezko lehentasuna da NO-Brentzat. Hala, 2017an Babesleku Olinpikoa Fundazioa (ORF) sortu zen, atleta errefuxiatuak eta 2024rako NOBko Errefuxiatuen Talde Olinpikoa kudeatzen dituen.

Joko Olinpikoetan eliteko atleten parte hartzea errazteaz

Taldeak barne hartzen ditu lehen aldiz Olinpiar Jokoetan parte hartuko duten atletak eta Tokion errefuxiatu izan aurretik euren herrialdeekin lehiatu ziren olinpikoak

Taldeko kide bakoitzaren atzean gatazka armatuen edo sexu, arraza edo erlijio orientazioagatiko jazarpenen biktima izan direnen istorioak daude

Errefuxiatuen taldea bere ekipamenduarekin, non enblema agertzen den.
IOC MEDIA

gain, ORF lanean ari da mundu osoko pertsonei kirol seguruak eskaintzeko. Nazioarteko elkarte eta programen bidez, ORFk mugimendu bat sortu nahi du, desplazatuak kirolaz baliu daitezela, eta, horretarako, haien adopzioa sustatu nahi du, laguntza-tresna gisa.

Sortu zenetik, ORFk ia 400.000 gazteri kirol seguruak egitea ahalbidetu die, 1.600 entrenatzaile baino gehiago gaituz kontinente guztietako 11 herrialdetan.

POLEMIKA ERE BAI

Herrialde batzuek errefusatu egiten dute UNHCRren Bulegoak Errefuxiatuen Talde Olinpikoko kideak aukeratzeko erabilitako metodoa. Adibidez, Venezuelako Gobernuak kritikatu du Francisco Edilio Centeno Nievesek kirol tiroaren modalitatean parte hartzea. Bere ustez, atletak ez ditu erre-

fuxiatu gisa katalogatzeko nazioarteko irizpideak betetzen.

«Berriz diogu nazioarteko zuzenbidearen eta errefuxiatuen nazioarteko zuzenbidearen printzipioak errespetatu behar direla: inpartzialtasuna, objektibotasuna, eta politizazio eza», adierazi zuen Venezuelako Gobernuak.

Gogoan izan behar da, 2022ko otsailean Ukrainako gerra hasi ondoren, Nazioarteko Batzorde Olinpikoak Errusiako eta Bielorrusiako atletei nazioarteko lehiaketetan parte hartzea debekatzea gomendatu zuela. Ordutik neutral gisa parte hartzeko aukera eman die, eta ez euren banderarekin.

Ildo horretatik, manifestazio ugari izan dira Parisen Israelen parte hartzea zigortzeko eskatzeko. Europalestine-eko kideek erakundearen hipokrisia salatu dute, atleta errusiarrei euren bandera nazionalaren azpian parte hartzea debekatzen zaien bitartean, ez delako horrelako neurririk hartu Parisen egongo diren atleta israeldarren aurka.

Zortzi kirolarik, sei gizonezko eta bi emakumezko, osatuko dute Pariseko Olinpiar Jokoetan parte hartuko duen talde palestinarra. Herrialdea 1996tik ari da Olinpiar Jokotan parte hartzen, eta ez du inoiz dominarik irabazi.

Parisen parte hartzea are esanguratsuagoa izango da Israelen sarraskiaren testuinguruan; izan ere, ia Gaza oso suntsitu du eta, gutxienez, 33.000 pertsona hil ditu, Olinpiar Jokoetan parte hartu zuten atletak barne. Palestinako lehen kirolari olinpikoa, Majed Abu Maraheel korrikalaria (21.a, 10.000 metroetan), ekainean hil zen, Gazako Nuseirat herriko kanpamentutik atera ezinik.